

Monjek utzi egingo dute Sandiusterrri

■ Erlijiosen komunitateak urtarrilean utziko du Hernaniko zaharren egoitza, komunitateko zuzendaritzak hala erabakita ■ Ongintzak adierazi du monjei eskerroneko ekitaldia egingo zaiela gutxi barru.

HIJAS de la Caridad ordene-ko monja komunitateak utzi egingo du Sandiusterrriko zaharren egoitza, komunitateko zuzendaritzaren erabakiz. Imanol Beroiz Ongintza Patronatuko buruak Kronikari adierazi dionez, Ongintzak eta Udalak behin eta berriz eskatu dio komunitateko zuzendaritzari monjak Sandiusterrin jarraitzeko, baina, ez da posible izan. Itxura denez, komunitate berak azken urteetan beste egoitza batzuk ere utzi ditu eta erlijiosen adina dela dio arrazoi nagusia: Ahizpen erdiak 65 urtetik gora ditu, eta konpainiak ezin du orain arteko gizarte zerbitzu guztietan jarraitu. Monjak urtarriaren 15ean joango dira Hernanitik.

Zerbitzuak mantendu

Imanol Beroizek adierazi duenez, Ongintza Patronatuak bere gain hartuko du orain artean monjek egiten zuten lana. Zerbitzu guztiak orain arte



Hiru hilabete barru erlijiosarik ez da izango Sandiusterrriko erresidentzian.

bezala mantenduko dira. Hori bai, aurrekontu haundiagoa beharko da horretarako.

1884. urtetik Hernanin

Hernaniko ospitala 1536garren urtean jarri zuten, Zinkonea eta Txirrita kalea bitartean. 1868an Udalaren esku gelditu eta edifizio berria egin zen, Benefizientzia Etxea ize-

nekoa. Udalarekin egindako hitzarmen baten bidez, 1884an monjek hartu zuten eta geroztik komunitate erlijiosorak emana da egoitzak garai ezberdinetan eskaini duen asistentzia hori. Orain dagoen Sandiusterrriko erresidentzia berria 1981ean hasi zen egiten eta 1983an inauguratu zen.

Urte hasieran 6 monja zeu-

den Sandiusterrin, 4 lanean eta bi jubilatuta. Irailean lanean ari ziren lautik bik utzi egin zuten erresidentzia eta urtarriaren 15etik aurrera ez da erlijiosarik izango Sandiusterrin.

Egunik jarri ez bada ere, Udalak adierazi du eskerrak emateko ekitaldia antolatuko duela erlijiosen laguntza eta zerbitzuagatik. □

Udalak Atsegindegi ingurua urbanizatu egingo du eta leku estalia jarriko du kultur ekintzetarako

■ Bi helburu ditu proiektuak: batetik, kultur ekintza askoren leku arazoak konpontzea eta bestetik, zona hori egokitu eta ekipatzea ■ Lurrazpiko aparkalekuaren proiektua horre barruan dihoa.

MANUEL Fraile Hirintza zinegotziak ostiralean azaldu zuen Udalak kultur aktibitatearako toki estalia egin nahi duela orain Atsegindegiko parkina dagoen toki horretan. Ideak ez du oraindik forma konkreturik, baina, proposamenak bi helburu nagusi ditu: 1) Hernanin kultur ekintza asko egiteko arazoak izaten dira eta horri soluzio bat eman nahi dio Udalak; eta 2) Atsegindegi ia herri

zentroa da eta inguru horri beste erabilpen bat eta beste egokitasun bat eman nahi dio: bai urbanizazio aldetik, bai ekipamendu aldetik, eta trafiko aldetik ere, Kaxkoko peatonalizazio prozesuari laguntzeko bitartekoak jarri nahi ditu Udalak, eta lurrazpiko aparkalekua jarri nahi du.

Bi plantako parkina

Ostegunean aurreratu bezala, Udalak Atsegindegin lurraz-

piko aparkalekua jarri nahi du, bi planta izango dituena. Planteamendua da bai aparkalekua, eta bai urbanizazioa eta ekipamendua dena proiektu baten barruan egitea. Eta horretarako Udala tanteo bat egiten ari da aparkamentuek zer demanda izango luketen jakiteko. Eskaintzen diren aparkalekuak izango lirake 15 m2 partzela indibidualak, itxiak, 10.500-12.000 euro bitartean kostako lirake-

nak eta 75 urteko kontzesio administratiboarekin. Ostiralean jende aurren egindako aurkezpen laburrean Frailek adierazi zuen lehenago ere egon zela proiektua Atsegindegin lurrazpiko parkin egiteko, baina, ez zela atera biak ez zelako.

Hala ere, aparkaleku proiektu horrek izaten duen erantzuna izaten duela ere, Manuel Frailek esan du espazio estali hori egin egingo dela. □

■ FUTBOLA-GORENGOA

Touring 2 - Hernani 4

HERNANIK partidu ona jokatu, 4 gol sartu eta 3 puntuak ekarri zituen atzo Errenteriatik. Hernani nahi eta ezinean bezala zebilen azken aldian, eta atzo erakustaldi ederra eman zuen. Lau gol sartu zituen, baina, gehiago ere izan zitezkeen. Jon Erkiziak 2 gol sartu zituen eta berriz ere bera izan zen partiduko destakatuenetakoa. Beste bi golak Portillok eta Bereziartuak sartu zituzten. Bereziartuak txilenaz sartu zuen, telebistan ere gutxitan ikusten den horietako gola.

Gaur Erregionaleko taldeak jokatuko du Zubipen Euskaldunaren kontra: 17:00etan. □

200 ehiztari, ehiza postuetako zozketan

TXANTXANGORRI elkartearen ari dira ehiza postuetako zozketak egiten. Orain artean nahiko lasai zijoan gauza, baina, ostiralean 200 ehiztari zeuden 110 postuetako bat egokitzeko esperantzan. Hala ere, larunbat goizean apenas uso giro haundirik egin zuen. Zozketan egunero izaten dira, arratsaldeko 20:00etan. □

JUBILATU ETXEA

Miranda de Argara eskurtsioa,

JUBILATU Etxeak eskurtsioa antolatuko du Miranda de Argara, urriaren 24rako (osteguna). Eskurtsioa goizeko 09:00etan aterako da Atsegindegitik, eta Miranda de Argara bidean Lizarra bisitatuko dute. Asteroko feria ere egun horretan da Lizarran. Bazkaria Mirandan bertan izango da, Carranza jatetxean. Eskurtsio horretarako sortea hilaren 21ean egingo da, astelehen honetan zortzi, 17:00etan. □

Akelarre Oialumen

OIALUME dantzalekuan Akelarre talde ezagunak joko du gaur. Festa 19:30etan hasiko da. □

SANTA BARBARA
PEUGEOT




Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 - Tel. 943 551 139 - 943 551 979

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskuko ez aldatzen ditugu

Peugeot 306 - HDI,	aire egokitua	SS-BF
Volvo 850	TDI	SS-AW
R-Megane Coupe Sport	1.4	SS-BJ
Citroen AX	5 ate Diesel 1.4	VI - L
SEAT Ibiza -	3 ate Diesel 1.8	SS-AJ
Opel Corsa	5 ate 1.2	SS-AK
Ford Courier	Diesela	SS-AS
Renault Express	Diesela	SS-AS
Mercedes Furgoneta	Diesela	SS-AH
Land Rover luzea	Dieselaeta hainbat kotxe merke.

Jatetxea



Venta Berri
Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
Larunbatetan itxita.

DORRONSORO



OKINDEGIA

Bertan egindako kalitatezko ogia

J.DORRONSORO OKINDEGIA, S.L
Lizeaga, 7 ☎ 943 33 36 18 -20120 HERNANI

■ ERRUGBIA



Hernaniarrek joko txarra eta ona biak egin dituzte ligako aurreneko partiduan.

Hernanik 15-34 galtzen hasi du liga

HERNANIKO lehen ekipoak ez du liga nahi bezain ondo hasi. Gora behera haundiko jokoak egin eta Caja Cantabriak 15-34 irabazi zion atzo Landaren. Hernaniarrek aurreneko denboran gaizki jokatu zuten eta markagailuak ere garbi erakusten du hori: 0-29 bukatu zuten. Hernanik ez zuten asmatzen eta Caja Can-

tabriari bere jokoa egiten uzten zion. *Benben* entrena-tzaileak lortu zuen denkantsoan ekipoa zuzentzea, eta, bigarren denboran, aurreneko 20 minutuak oso ondo jokatu zituzten Landareko mutilek. Hiru entsaio egin eta 15-29 jarri ziren, baina, nekea eta kontrarioaren efikaziak gauzak lehengo lekuan jarri zituen. Bi-

garren denborako partziala 15-5 izan zen hernaniarren alde, baina, aurreneko denboran kantabroek alde haundia hartu zuten. Hernanik galdu eta gusto gazigozoa utzi du.

Bestalde, poza Hernani B taldeak ekarri du Bizkaiatik. Hernaniarrek 0-68 irabazi diote Abantori eta hori jokalariz justu joan omen zirelarik! □

SAGARDO TXAPELKETA PEÑA OTAÑON

Barkaiztegi txapeldun, Petritegi bigarren eta Zelaia hirugarren, Peña Otañoko txapelketan

■ Afaritan 90 lagun inguru bildu ziren, giro ederrean ■ Antolatzaileak, oso gustora.



Ezkerretik, Odriozola lehendakaria, Katxola, Barkaiztegi, Aristeta (Peña Otaño) eta Petritegi.

PEÑA Otaño elkarteak Sagardo txapelketa antolatu du aurreneko aldiz, eta Barkaiztegi sagardoak jaso zituen puntu gehiena. Martutenekoak 1.163 puntu atera zituen. Bigarren Petritegi gel-

ditu zen, 1.127 punturekin eta hirugarren Zelaia 1.123ekin. Txapelketan Peña Otaño bertan dauden 7 sagardozaleek hartu zuten parte. Sariak Iker Osa eta Iñaki Zelaia bertsolariak azaldu zituzten bertsotan.

Barkaiztegi eskerrak eman zizkien antolatzaile eta lanean aritu ziren denei Sagardo txapelketek sagardoa promozionatzeko asko laguntzen dutelako. Txapelketa oso ondo eta oso giro onean joan zen. □

NERE BORDA BERRITZEKO PROIEKTUA

Fraile: "Bizitza bakarreko etxeak zijoazten tokian orain herriak parkea izango du"

UDALAK orain dela gutxi onartu du Latsunbeko Nere Borda parke botanikoa berri-tzeko proiektua eta ostiralean aurkeztu zuen jende aurrean.

Nere Bordaren antolaketa berriak ia 6.000 m²-ko parke hori hiru zatitan banatua utziko du: Latsunbeko rotunda ondokoa bat, petrila bota eta erabat irekia geldituko dena; beste zona pedagogikoa deitu zaiona, nolabait esposizio leku izango dena: urteko programa-rekin, ikastetxeek eta abar parte hartzeko modua emango duena; eta hirugarrena, basoa eta baso ondoko jardina; hori bere horretan utziko da eta ez da azpiegitura txukundu eta osatu besterik egingo. Parkeak sarrera rotunda eta Transpakar arteko puntu batetik izango du, eta parketik barrena ia Transpakarreraino joateko barruko bide bat egongo da, karreteratik ibili beharrik gabe.

Aurkezpenean Manuel Fraile Hirigintza zinegotzia, udal arkitektoa eta EKOS enpresako ordezkaria aritu ziren azalpenak ematen. Frailek parkearen balioa goratzeaz gain, azpimarratu zuen orain 3 urte baino gehiago egin ezean, Nere Bordako zatirik haundienan bizitza bakarreko etxeak egingo zirela. Eta orduko aha-



Nere Bordako pinu hori arbol berezi kontsideratzeko bidean.

leginak orain parke berri bat utzi duela herritarrentzat. Frailek esan zuenez, tankera horretako inizatibak dira ingurugiroaren aldeko benetako politika "ingurugiroaz asko hitz egiten den garai hauetan" esan zuen. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Eguz: Aizpuru
Latsunbe Berri 11
☎ 943 336077
- ▶ Gaez: Aizpuru
Latsunbe Berri 11
☎ 943 336077

IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai, Kardaberaz kalean. Pana parkerako bistak. 2 gela, sala, sukaldia, 2 komun eta aparkatzeko plaza erreserbatua. ☎ 646 47 02 58

Pertsona bat behar dugu tabernako sukaldian lan egiteko. Interesatuak deitu asteleheneetik aurrera: ☎ 943 55 67 06

Klase partikularrak emango nituzke: elektronika (digitala eta analogikoa) elektrizitatea, Neumatika, Hidraulika... ☎ 646 83 27 52

HAURTZAINDEGIA - LUDOTEKA

ORDUKA

Latsunbe-Berri, 2 - HERNANI

☎ 943 55 22 00



- ▶ Hezitzaile tituludunak
- ▶ 10 hilabetetatik 8 urtera bitarteko haurrak hartzen ditugu. Ordukakako egonaldiak: ordubetetik 5 ordu bitartera
- ▶ Urte osoan zehar zabalik, jai egunetan izan ezik. 8:00etatik 20:00ak arte.
- ▶ Etor zaitetz bisitatzeraino inongo konpromezurik gabe.

Urolalde Zentrua
Oindi kalea 1 - HERNANI
Tel.: 943 33 37 11 / 943 33 42 27

INTERNET IKASTAROKAK
(16 ordu)
%100 subentzionatuak
Ordutegia
Arratasaldetan 17:30-19:30
Hasiera urriaren 21ean
Asteleheneetik ostiralera

Langai

BEGIRA OPTIKA

URBIETA 8, TEL.: 943 55 41 54 HERNANI